

Seme-alaben euskararen erabilera

GURASOENTZAKO AHOLKUAK ETA PROPOSAMENAK

Oinarri on bat eskaini

Seme-alaben hizkuntza-ohiturak axola bazaizkigu, kontuan izan honakoak:

1. Ezin ditugu seme-alaben hizkuntza-ohiturak erabaki baina oinarri on bat jar dezakegu

Gizarteko hizkuntza nagusia gaztelania da eta horrek eragina du gure seme-alaben hizkuntza-ohituretan. Lagunartean eta beste hainbat harremanetan gaztelaniara jotzea ohikoa eta ulergarria da.

Beraz, argi izan behar dugu: guk nahi dugu beraiek euskara erabiltzea hainbat harremanetan, eta lagundu egin behar diegu.

Horri begira, hasteko, saia gaitzen hiru arlotan oinarri on bat eskaintzen: euskara aberatsa, eredu egokiak eta bizipenak eta erreferenteak.

Oinarri on bat jasotzen badute, hizkuntzak hautatzerako garaian errazagoa izango da euskararen aldeko hautua egitea, bereziki nerabe-gaztaro garaitik aurrera.

Horretaz gain, eguneroko harremanetan laguntzeko ahalegina ere egin dezakegu eta horri begira jarrerak zaintzen saiatu.

2. Euskara aberatsa:

Euskaraz baliabideak izatea oinarrizkoa da hizkuntza-ohiturei begira. Etxetik ahalik eta euskara aberatsena eskaintzen ahalegindu gaiten.

Dokumentu honetako hirugarren atalean seme-alabei euskara aberatsa eskaintzeko hainbat proposamen egiten dizkizuegu.

3. Eredu egokiak:

Hizkuntza-ohitura asko imitazioz ikasten dira. Gurasook hainbat harreman euskaraz sortzen ahalegintzen bagara, euskaraz izan daitezkeen harremanak euskaraz baditugu, eta, azken batean, euskararekiko jarrera aktiboa baldin badugu, hori transmitituko diegu seme-alabei. Aldiz, etxetik kanpo harreman berriak gaztelaniaz izaten badira edota euskaraz izan daitezkeen harremanetan berehala gaztelaniara jotzen badugu, jarrera hori transmitituko diegu.

4. Erreferenteak eta bizipenak:

Euskarazko erreferenteak eta bizipenak behar dituzte. Udalekuak, eskola orduz kanpoko jarduerak, musika taldeak, antzerkiak, jostailuak, aldizkariak... Gaztelaniaz etengabe jasotzen dituzte erreferenteak, baina euskaraz, 7-8 urtetik aurrera, kosta egiten zaigu. Beraz, horretan ere gurasook jarrera aktibo bat behar dugu.

Kontuan izan:

- Zaindu etxean euskarak duen lekua: musika, telebista, ipuinak, jostailuak...
- Eraman euskarazko ekitaldietara, bilatu euskarazko arnasmuneak (herri euskaldunetara joan...), eskola orduz kanpoko jarduerak euskaraz eskaini, eta abar.
- Gurasook ere kontsumitu euskarazko produktuak: irratia, musika, telebista... Seme-alabei euskara eskaintzea beharrezkoa da, baina gurasoontzat ere hizkuntza baliagarria eta erakargarria izan behar du.

Webunea eta gaia	
Euskarazko produktuak www.katalogoa.eus	
Filmak eta marrazki bizidunak https://zernonikusi.eus	
Filmak, aplikazioak, musika, eta abar https://eranafarroa.eus/baliabideak	
Marrazki bizidunak https://www.youtube.com/@marrazkiak/featured	
Entzuteko ipuinak www.etxegiroan.eus	
Entzuteko ipuinak www.aittu.eus	
Entzuteko ipuinak Mobileko aplikazioa: Ipuintxo	
Entzuteko ipuinak https://www.symbaloo.com/mix/ipuinklasikoak	

Webunea eta gaia	
Entzuteko ipuinak http://www.solasegitekoipuinak.net/audio-liburu/menu.html	
Abestiak www.txantxangorria.eus	
Abestiak https://enekantak.org/multimedia/bideoak	
Karaokea https://www.youtube.com/playlist?list=PLEF3CEC86C69BA527	
Euskarazko jolasak https://www.urtxintxa.eus/jolasguneak/jolasak/	
Euskarazko musika www.badok.eus	
Irratia euskaraz www.eitb.eus/eu/gaztea	
Aldizkaria www.irrienlagunak.eus	

Euskararekiko jarrera aktiboak landu

Oinarri on bat eskaintzeaz gain, euskararekiko jarrerak lantzen ere saiatu gaitezke.

Gure seme-alabek lagunartean euskaraz egitea nahi dugu, baina euskaraz aritzea nahiko genukeen egoera edo harreman batzuetan gaztelaniaz ari direla ohartzean zer egin? Nola eragin? Nola landu gure seme-alaben jarrerak?

Kontuan izan:

- Jarrerei buruz ari gara: gure seme-alabek hainbat egoeretan euskaraz aritzeko ahalegin kontzientea egitea nahi dugu. Hau da: ulertzen dugu ohikoa eta normala ere badela gaztelaniarako joera, bere harremanetan batzuk gaztelaniarako joera handia badute gure seme-alabek ere joera hori hartu baitezakete.
- Ez dira euskaldun perfektuak izango (gu ere ez gara) baina euskaldun aktiboak izan daitezke (gurasook ere hori gara). Kontraesanak izango dituzte eta euskaraz izan daitezkeen harreman batzuk gaztelaniaz ere izango dituzte, baina bilatu behar dugun jarrera honakoa da: gero eta harreman gehiagotan gero eta euskara gehiago erabiliko duten seme-alabak izatea.
- Mugak ditugu, baina lagundu nahi diegu: prozesu bat da eta jarrera hori denboran zehar lortu daiteke. Kontuan izan helburua gure dela (guk nahi dugu beraiek jarrera hori izatea) eta beraz guk lagundu behar diegula. Baina, era berean kontuan izan mugak ditugula eta ezin ditugula seme-alaben hizkuntza-ohiturak erabaki. Eskaini diezaiegun oinarri on bat eta egon gaitezen gure buruarekin harro.

Lagunartean euskara gehiago erabiltzen laguntzeko, hauek ideia batzuk:

- Mezu egokiak eman
- Tartean sartzea
- Helburu txikiak adostu
- Gaiari buruz hitz egitea eta errefortzu positiboak eman

Zer egin dezakegu seme-alabei lagunartean euskara gehiago erabiltzen laguntzeko?

<p>Mezu egokiak ematea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Guk nahi dugu berain artean euskaraz egitea eta gure nahia azaldu behar diegu. Ahalegin hori eskatuko diegu. • Kontuan izan: <ul style="list-style-type: none"> • Tonua zaindu, ulertu beti ez dela erraza. Lagundu egin nahi diegu. • Gertatuko dela dakigunez, aurretik hitz egin. • Hobe berari eskatzea une jakin batean, jolasten ari diren lagun guztiei batera baino. <hr/> <ul style="list-style-type: none"> • Adibidez: parkera goaz. Badakizu zure lagunak han egongo direla. Nik nahi nuke zuk euskaraz asko egitea. Ulertzen dut batzuk beti erdaraz egiten dutela, baina hala ere...
-----------------------------------	--

<p>Tartean sartzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ahal duzuenean tartean sartu eta beraiekin batera jolastu, laguntzeko modua da. • Mugatua da, ezin dugu beti tartean egon. Baina zenbat eta gehiagotan aritu beraiekin batera, orduan eta gehiago laguntzen diegu. Hizkuntza-ohiturak finkatu gabe dituztenekin benetan inetersgarria da hau. • Lagungarria da jolas edo egoera berriak proposatzea eta hizkuntza-errutinak sartzea. Gaztelaniaz ikasi eta erabiltzen duten jolas bat euskaraz egitea eskatzea abaino, hobea da jolas berriak euskaraz proposatzea, horietan hizkuntza-errutinak txertatzea (euskaraz errepikatu behar diren lelo, esaldi edo abestiak). Horietara euskaraz jolastea errazagoa da. <hr/> <ul style="list-style-type: none"> • Adibidez: <i>Sardina bat, bi sardina, elkarte ziren...</i> Edo <i>Ikusi makusi, zer ikusi, ikusten dut ikusten dut gauza bat...</i> Horrelako jolasetan hizkuntza-errutinak daude eta beraien kabuz ari direnean ere errazagoa da euskara mantentzea.
-------------------------------	--

<p>Helburu txikiak adostea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza aldetik gustukoa ez den egoera eman daitekeela ikusten baduzue, baina egoera nahiko babestua izan daitezkeenez zuek lagundu dezakezuela, adostu helburu txikiak semea-alabekin. • Adostu dugun horren aurrean nola jokatuko dugun adierazi. • Seme-alaben lagunei adieraztea ere, egoera batzuetan egokia izan daiteke. • Aurreikusitako eta adostutako egoera horren amaieran, hitz egin berarekin. • Beste gurasoen konplizitatea bagenu, askoz hobe, eragina handiagoa izan daiteke. <p>• <i>Adibidez: Gaur zure bi lagun datoz etxera. Badakizu nik zuek euskaraz egitea nahi dudala, gure etxean euskaraz bizi nahi dugu. Zu saiatu zaitez. Konturatzen banaiz erdaraz ari zaretela batzuetan zuengana hurbilduko naiz, eta batzuetan eskatu ere egingo dizuet euskara egiteko...</i></p>
---------------------------------------	--

<p>Gaiari buruz hitz egitea eta errefortzu positiboak ematea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ahalegina eskatu beharko diegu seguruenik, baina errefortzu positiboak emateko modua aurkitu behar dugu. Agian guri ez zaigu iruditzen baina beraiantzat ahalegin bat izan daiteke lagun batzuetan edota egoera batzuetan kontzienteki euskaraz aritu behar izatea. • Hitz egin tarteka gaiari buruz. Gaiari buruz hitz egiterakoan gure jokabideei buruz hitz egin (zer eta nola egiten dugun, guk gure harremanetan nolako zailtasunak ditugun...), zergatik bizi nahi dugun euskaraz, eta abar. <p>• <i>Adibidez: Konturatu naiz zenbat euskara erabili duzun gaur. Zuen taldean baidade bi beti erdaraz egiten dutenak eta hala ere zuk behintzat asko erabili duzu. Ez dakizu zenbat pozten nauen horrek! Niri ere pasatzen zaizkit horrelakoak...</i></p>
---	--

Kontuan har ditzakezuen ideia batzuk besterik ez dira. Ziur zuei beste hainbat tresna ere bururatzen zaizkizuela. Segi horretan!

Etxetik euskara aberatsa eskaintzera begirako proposamenak

KOMUNIKAZIO GAITASUNA: hizkuntza egoera diferenteetara moldatzen jakitea. Hiztun ona, beraz, pentsatzen eta sentitzen duena hitzez adierazten dakien pertsona da. Hiztun ona komunikatzaile ona da.

Alde horretatik, **gurasoen jarrerak** garrantzi handia du: frogatua dago haurren hizketaren garapena gehien sustatzen duen faktorea helduekiko eragin-trukea dela, eta horren barruan, gurasoekiko interakzioa.

Hizkuntza eta hezkuntza uztartzen dituen gaitasun komunikatiboa lau atal nagusitan banatu ohi da: gaitasun linguistikoa, gaitasun soziolinguistikoa, gaitasun diskurtsiboa eta gaitasun estrategikoa.

Gaitasun linguistikoa: hizkuntza bera

Lexikoa (hiztegia)
Gramatika (morfologia, sintaxia, ...)
Semantika (hitzen esanahia eta harreman logikoa)
Fonologikoa (azentua, erritmoa, entonazioa, ...)
Ortografikoa eta ortoepikoa (ortografia, puntuazioa, ahoskera)

Gaitasun soziolinguistikoa: hizkuntzaren erabileraren testuingurua

Aldaera estandarra (euskara batua)
Aldaera geografikoak (euskalkiak)
Jendarte aldaerak (soziolektoak)
Testuinguru aldaerak (erregistroak, estiloa)

Gaitasun diskurtsiboa: hizkuntza testuka, diskurtsoka antolatzea

Informazioaren kudeaketa eta antolaketa
Ideien garapena
Hitz egiteko txanda
Testu motak (deskribapena, narrazioa, azalpena, argudioa)

Gaitasun estrategikoa: komunikatzeko estrategiak, bideak

Elkar-eragintza, galderak, errepikapenak, errimatxoak, abestiak, dinamizazioa, inprobisazioa, jariotasuna, zehaztasuna,...

Hurrengo orrietan gaitasun hauekin lotutako hainbat ideia eta tresna aurkezten dizkizugu.

Seme-alaben adina kontuan hartuta eta garatu nahi diren gaitasunen arabera egiten dira proposamenak.

Gaitasun linguistikoa

Hizketan hasi aurretik

Abestiekin jolasean

Gaitasun linguistikoak garatzera begira ere, oso aproposa da haurrei jaio berritatik asko abestea: haurren abestiak, betiko abestiak, gure gustukoak...

Abestiekin asko jolastu dezakegu: abestiaren erritmoarekin jolastu (azkartu, moteldu...), tonuarekin jolastu (altu, baxu...), erregistro ezberdinetan abestu (pozik, triste, barrez, negarrez...).

Guraso berritsuak (I)

Guraso berritsuak asko hitz egiten dutenak baino elkarrizketa asko sortzen dituztenak dira. Oraindik hizketan ez dakiten haurren kasuan, beraiek ezingo digute erantzun, baina bai guk gure buruari: Nekatuta zaude? Bai? Etorri ba nirekin. Eseri nire magalean. Ondo? Zer egin duzue gaur? Ez esan, nik asmatuko dut...

Haurrak entzuten eta gure jokabideak ikusten ari dira: hitzak, doinuak, erritmoak, tonuak eta beste hainbat elementu entzun eta barneratu ditzakete.

Hizketan hasten direnean

Sinonimoekin jolasean

Hizketan hasten direnean, elkarrizketetan sinonimoak erabiltzen saiatu gaitzke. Ez beraiei sinonimoak erabiltzeko eskatzen, guk ahal dugunean txertatzen baizik. Hau da, gauza bat esaten dugunean edo esan dutenean, hitz joko moduan, hainbat sinonimo segidan esatea:

1. Nekatuta nago. Nekatuta zaude? Porru eginda? Leher eginda? Nekaporratuta? Zerbait egin beharko dugu hori konpontzeko!
2. Gosea daukazu? Nik bai. Entzun nire tripazorriak. Hau da apetitua, hau da jateko gogo!

Akatsak zuzentzen

Nahiko ohikoa izaten da seme-alabek gaizki erabiltzea guk ondo erabiltzea nahi genukeen esamolde edo hitz batzuk. Gure proposamena: ez zuzendu gehiegitan, eta, batez ere, ez eskatu gaizki erabiltzen duten hori zuzen errepikatzeke.

Gaitasun komunikatiboak garatzen ari dira eta hizkuntza bera ere garatu behar dute. Zuzendu nahi ditugunean, saiatu bestelako bide batzuk erabiltzen. Adibidez: beraiek gaizki erabiltzen dutenean guk zuzen errepikatzea baina beraiei errepikatzeke eskatu gabe (entzun dezatela eredu egokia).

Gaitasun soziolinguistikoa

Hizketan hasi aurretik

Egoera jakinetarako esamoldeak

Egoera jakinetarako esamoldeak bilatu edo asmatu ditzakegu: hitz jolasak, leloak, abestiak, esaera zaharrak... Egoera horietan askotan erabiliko ditugu esamoldeak, gaitasun linguistikoa zaintzeaz gain gaitasun soziolinguistikoa ere lantzen dugu (testuinguruen arabera esamoldeak, esanahi eta tonu jakinetan...).

Hizketan hasten direnean

Erosketak egiten

Erosketak egitera joan behar dugu baina seme-alabek laguntzea nahi dugu. Erosi beharreko zerrenda egingo dugu eta beraiek eskatuko dutela adostuko dugu. Nola eskatuko dute? Nola hasiko dira? Zer galdetu behar dute? Zein tonu erabiliko dute (entsaiatu)?

Noski, denda eta dendaria ezaguna diren erosketei buruz ari gara: seme-alabentzat pertsona ez da arrotza eta badakigu euskalduna dela.

Erosketen moduan, beste egoera askoren inguruan ere antzekoak egin ditzakegu: telefonoz deitzea familiako norbaiti. kiroldeqira ioatea...

Hitanoa erabiltzen

Etiket hitanoa (hika aritzeko modua) transmititzea tresna indartsua da gaitasun komunikatiboei begira, hizkuntzaren baliabide asko eskuratzen baitira.

Hori egiteko gai ez garen gurasook, hitanoarekin jolastu dezakegu eta esamolde batzuk eskaini.

Adibidez, bost esaldi ikasi eta horiek erabiltzeko ohitura hartu. Ez diegu hizkera transmitituko baina ezezaguna ez zaie egingo eta hizkera informalarri begira baliagarria ere izan daiteke: Ondo pasa al den? Gosea daukak? Hori egina zagok! Ekar ezan hori! Hau dun poza!

Esaldi batzuk besterik gabe aukeratu ditzakegu edo testuinguru jakin bati lotuak. Adibidez: adarra jotzeko erabiltzen ditugunak.

Gaitasun diskurtsiboa

Hizketan hasi aurretik

Azalpenak gure buruari erantzunez

Seme-alabekin ari garenean gure buruarekin ozen hitz egitea da. Hau da, zerbait galdetzen diegu beraiei edo gure buruari eta erantzun ere egiten dugu. Horrekin, seme-alabek entzuten dute guk nola egiten dugun (ideien garapena, kateatzeak, testu motak...).

Adibidez: Zer jantziko dugu gaur? Badakizu niri zer janztea gustatzen zaidan? Ba eguraldi ona egiten badu....

Guraso berritsuak I proposamenaren antzekoa da, baina han elkarrizketa modukoak proposatzen dira eta hemen bakarrizketa itxura gehiago hartzen du.

Hizketan hasten direnean

Ipuinekin jolastea

Ipuinekin jolastea bide ona izan daiteke, besteak beste, gaitasun diskurtsiboa lantzeko. Nahi adina jolas asmatu daitezke ipuinekin:

1. Ipuinetan aldaketak sartzea: pertsonai berriak, pertsonaien izaera aldatu, amaiera aldatu... (Adibidez, 3 txerritxoen ipuina kontatu beharrean 5 txerritxoena kontatzea, kontatzen hasi aurretik txerritxoen izenak adostea...).
2. Ipuin berri bat hartzen dugunean: kontatu aurretik portada ikusi eta zertaz izan daitekeen hitz egin, marrazkiak ikusi eta orri bakoitzean zertaz arituko den hitz egin, ondoren ipuina irakurri...
3. Dagoeneko ezagunak diren ipuinen kasuan, guk ipuina irakurri beharrean, haiek guri kontatzea...

Guraso berritsuak II

Guraso berritsuak, kasu honetan, hizketaldi asko eta ezberdinak sortzen dituztenak dira: galderak egin, proposamenak, zalantza erakutsi, azalpen berriak emateko bidea egin...

Modu horretan, seme-alabei gaitasun diskurtsiboarekin lagunduko diegu: azalpenak modu ezberdinetara ematen, ideiak antolatzen, ideia berriak bilatzen, eta abar.

Gaitasun estrategikoa

Hizketan hasi aurretik

Leloak asmatzea

Mezua indartzeko modu bat esan nahi diegun horri lelo bat edota musika bat eranstea da. Txikiak direnetik hasi gaitzke horrelakoak erabiltzen eta horrelakoekin jolasten.

Adibidez:

- Ohera joateko ordua dela adierazteko abestia: Goazen ohera, agudo goazen ohera, goazen ohera...
- Ipuina amaitu dela adierazteko esamoldea: Eta hori horrela bazan...
- ...

Hizketan hasten direnean

Badakizu zer gertatu den?

Badakizu zer gertatu den? Galdera egingo diot semeari-alabari. Adibidez: sukaldean edalontzi bat erori zait eta hautsi egin zait.

Ondoren, egoerekin jolasten hasiko gara: negarrez esan, garraxika, guri axola ez balitzaigu bezala... Tonuarekin eta gorputz espresioarekin jolastuko dugu.

Seme-alabei ere parte hartzea proposatuko diegu: Nola adieraziko genuke...

Mezua emateko moduetara jolasten ikasten badute, hainbat egoeretan topatuko ditugu horretara jolasteko moduak:

- Ipuinak irakurtzen edo kontatzen ari garenean.
- Eguenean zehar kontatutako gauzei buruz ari garenean.
- Telebistan ikusi dugun zerbaiti buruz ari garenean.
- ...

Marrazkiak azaltzea

Marrazki edo argazkiak bat hartu eta besteei azaltzea da erronka, baina besteek marrazkia ikusi gabe.

Marrazkiak badira, oinarritzko forma batzuk izan daitezke modu ezberdinetara kokatuak eta neurri ezberdinekin (laukiak, hirukiak, borobilak...).

Argazkiak badira, lekuekin eta pertsonekin jokatu dezakegu (izenak esan gabe, noski): argazki honetan mendi bat dago, askotan joan gara, behin erori egin nintzen lokatzetan...